



DEIALDIA, BI IZANGAI-ZERRENDA –BAT PRESTAKUNTZARAKO, ETA BESTEA ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO– HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, LAN MEDIKUNTZAKO MEDIKU ESPEZIALISTA LANPOSTUAN ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

Iruñeko Udalak, Giza Baliabideetako zuzendaritzak 2020ko azaroaren 4an emandako Ebazpenaren bidez, honako deialdi hau onetsi du:

DEIALDIAK

IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIA, PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN LAN MEDIKUNTZAKO MEDIKU ESPEZIALISTA ARITZE ALDERA.

Hona deialdi hau arautuko duten

OINARRIAK

Lehena.- Izangai-zerrenda bat hautaprobek bitartez osatzeko deialdia iragartzen da, Lan medikuntzako mediku espezialista lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritze aldera, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Iruñeko Udalaren edota haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak izatea, deitutako lanpostuaren maila berekoak edo beheragokoak, eta eskubidez dagokien gehieneko prestakuntza-aldia agorturik ez edukitzea.
- b) Lanpostuan gutxienez hiru urte benetan eman izana.
- c) Ez egotea borondatezko edo nahitaezko eszedentzian.
- d) Medikuntzako Lizentziadun edo Gradudun titulua edukitzea Lan medikuntzako espezialitatean, edo baliokidea den titulu bat, edo halakorik erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzean. Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztatzea eduki beharko dute.

2.2. Deialdi honi dagokion Lan medikuntzako mediku espezialista lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izan behar dute euskara berriazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen



Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

2.3. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 2.1. eta 2.2. zenbakietan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.4. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntzak dirauen bitartean ere.

Hirugarrena.- Hautapoben nondik-norakoak eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honetan bi deialdietarako onetsitako arau komunetan ezarritakoarekin bat eginen da.

Laugarrena.- Prestakuntzako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta, hala badagokie, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran aritzeko izendapena honako hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua eta dagozkion aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Aipatutako Erabakian berriaz ezartzen da prestakuntzarako zerrendak lehentasuna izanen duela aldi baterako kontrataziorako hautapen-probetarako deialdi publikoen bidez eratutako izangai-zerrendarekiko.

IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIA, LAN MEDIKUNTZAKO MEDIKU ESPEZIALISTA GISARA ALDI BATERAKO KONTRATATZE ALDERA.

Hona deialdi hau arautuko duten

OINARRIAK

Lehena.-Izangai-zerrenda bat hautapoben bitartez osatzeko deialdia iragartzen da, Lan medikuntzako mediku espezialista lanpostuan aldi baterako aritzeko, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere parte har



dezakete, betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenek –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Medikuntzako Lizentziadun edo Gradudun titulua edukitzea Lan medikuntzako espezialitatean, edo baliokidea den titulu bat, edo halakorik erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzean.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko dute.

d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea, bete behar dituzten eginkizunetan aritzeko.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizita ere.

f) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

2.2. Deialdi honi dagokion Lan medikuntzako mediku espezialista lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

2.3. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 2.1. eta 2.2. zenbakietan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.4. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena.- Hautapoben nondik-norakoak eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honetan bi deialdietarako onetsitako arau komunean ezarritakoarekin bat eginen da.

Laugarrena.- Dei egitea aldi baterako kontrataziorako izangaiei.

Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.



Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

BI DEIALDIETARAKO ARAU KOMUNAK.

Lehena. Eskabideak.

1.1. Bi deialdietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Deialdien testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es) eta Herritarrendako Arreta Bulegoan.

1.2. Deialdietan parte hartzeko eskabideak Iruñeko Udalaren edozein Erregistrotan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

Eskabideak I. eranskinean jasotako ereduari lotuko zaizkio. Eredu hori eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta bulegoetan eta Interneten, www.pamplona.es helbidean.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

1.3. Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1.3.1. Ziurtagiria, izena emateko eskubide tasa dela-eta 12,50 euro Iruñeko Udalari ordaindu izana egiaztatzeko. Tasa hori ordaindu ezean, izangaia bazterturik geldituko da.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

Tasa Iruñeko Udalak honako finantza-entitate hauetan dituen kontuetan ordaindu daiteke, haietan dirua sartuz edo haietara banku-transferentzia eginez: Caixabank (ES04 2100 2173 8102 0022 2762), Laboral Kutxa (ES22 3035 0039 3403 9090 0005) eta Nafarroako Rural Kutxa (ES07 3008 0001 1411 0344 7429). Edo, bestela, Udaleko Diruzaintzan (Merkatuko kalea 7-9, 2. solairua). Ordainagirian honako datu hauek adierazi beharko dira, nahitaez:

–Izangaiaren izen-abizenak.

–NAN / IFZ.

–Ordainketa zein kontutan egin den eta horren zenbakia.

– Kontzeptua: Lan medikuntzako mediku espezialista lanposturako deialdia.



1.3.2. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, aldi baterako kontratazioetarako deialdiaren 2.1. a) oinarrian eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.

1.3.3. Medikuntzako Lizentziadun edo Gradudun tituluaren edo horren baliokidearen fotokopia, Lan medikuntzako espezialitatean.

1.3.4. Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) edo horren baliokidea den titulu baten fotokopia, halakorik behar izatera.

1.3.5. Eskabidearekin batera, desgaitasun bat aitortua duten izangaiek hori frogatzeko agiria – organo eskudun batek emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer nolako desgaitasuna duten, eta eskatutako egokitzapenak.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arte haiek gauzatutako egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, eskabidean egindako faltsukeria dela eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

Nahikoa izanen da agirien kopia sinpleak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du halako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

Bigarrena. -Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

2.1. Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta zerrenda jendaurrean ikusgai paratuko da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es webgunean eta Udalaren iragarki-taulan, Udaletxearen atzealdean.

2.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo eskabidean akatsik balego horiek zuzentzeko, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

2.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratzeko. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako lehen hautapropa egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor baztertirik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da eta Iruñeko Udalaren webgunean nahiz iragarki-taulan argitaratuko da, lehen hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

2.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko, baldin eta baztertuak izan badira beraiei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik.



2.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdietan parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legezkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Hirugarrena. Hautapen-prozesua. Hautapen-prozesuak bi atal izanen ditu, bi deialdietarako komunak (bi proba teoriko-praktiko eta merezimenduen balorazioa).

3.1. Lehen proba. Izangaiek proba teorikoan test erako galderak dituen galdetegi bat erantzun beharko dute idatziz, Epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran. Galderak Deialdi honen II. eranskinetako gaitegian agertzen diren gaiei buruzkoak izanen dira. Hiru aukera egonen dira galdera bakoitzari erantzuteko, eta horietako bat baino ez da baliozkoa izanen.

Proba honek gehienez ere 35 puntuko kalifikazioa izanen du. Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortu akatsak aukera anitzeko erantzunak dituzten galderetan. Proba gaitutako dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (17,50 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek.

3.2. Bigarren proba. Proba teoriko-praktikoa: Izangaiek kasu teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dituzte, Deialdi honen II. eranskinetako gai-zerrendan agertzen diren gaien ingurukoak. Izangaiek memoria-proiektua ahoz aurkeztu eta defendatu beharko dute Epaimahaiaren aurrean, zehaztuko den datan.

Epaimahaiak zehaztuko du proba honetako ariketak egun bakarrean edo desberdinetan egingen diren, baita horien iraupena ere, ezarritako edukien arabera.

Proban gehienez ere 50 puntu eskura daitezke. Probaren balorazio-irizpideak hura hasi aurretik zehaztuko dira. Proba praktikoa gaitutako dute guztira gutxienez ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (25 puntu) lortzen duten izangaiek. Edonola ere, eta proba hau kasu praktiko batez baino gehiagoz osatuta balego, kasu praktiko bakoitza bere aldetik gaitutu beharko da (bakoitzari esleitzen zaion puntuazioaren % 50 erdietsita), proba bere osotasunean gaitutu ahal izateko.

3.3. Merezimenduak.

Deialdi honetan merezimenduek gehienez ere 15 puntuko kalifikazioa izanen dute.

3.3. a) Antzeko eginkizunetan emandako zerbitzuak (gehienez, 7 puntu).

1. Edozein administrazio publikotan, Lan Medikuntzako eginkizunetan, A mailako teknikari kategorian edo antzekoan emandako zerbitzuak: 2 puntu urte bakoitzeko. Gehienez, 5 puntu.

2. Administrazioetako ez diren enpresetan, Lan Medikuntzako eginkizunetan, 1. kotizazio-taldeko teknikari kategorian edo antzekoan emandako zerbitzuak: 1,50 puntu, urte bakoitzeko. Gehienez, 5 puntu.

Oharrak:



- a) Urte-kopurua osoa ez bada, zerbitzuan emandako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio (zenbatu beharreko gutxieneko aldia: hilabete oso bat).
- b) Lanaldi partzalean emandako zerbitzuen kasuan, dagokion zatia deskontatuko da.
- c) Ez dira baloratuko deialdiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren emandako zerbitzuak.
- d) 3.3.a) letrako 1 eta 2 zenbakietan lortutako puntuazioaren batura gehienez ere 7 puntu izanen da.

3.3. b) Gaiarekin lotutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu izana (gehienez, 5 puntu).

1. Nahitaez eskatutako titulazio betekizuna betez, deialdian parte hartzeko aukera ematen duen Diplomatura, Gradu edo Lizentziatik gorako titulazioa: 2 puntu titulazio bakoitzeko, gehienez ere 2 puntura bitarte.
2. Masterra Lan Osasunaren edota Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan (60 ECTS): 2 puntu master bakoitzeko, gehienez ere 2 puntura bitarte. Ez dira kontuan hartuko deialdian parte hartzeko nahitaez eskatutako titulazioak.
3. Lan-osasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikastaroetan parte hartzea, 200 orduz edo gehiagoz: puntu 1 ikastaro bakoitzeko, gehienez ere 2 puntura bitarte.

Oharrak

- a) Ez dira zenbatuko egindako ordu-kopurua adierazita ez duten ikastaroak, ezta 200 eskola-ordu baino gutxiagokoak ere.
 - b) 3.3.b) letrako 1, 2 eta 3 zenbakietan lortutako puntuazioaren batura gehienez ere 5 puntukoa izanen da.
- 3.3.c) Euskararen ezagupena, ofizialki egiaztatuta (gehienez, 3 puntu):

1. B2 maila: 1,5 puntu.
2. C1 maila: 3 puntu.

Tituluak eta egiaztagirak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat baloratuko dira. Maila horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 ebazpenean jasota daude, zeinak ezartzen baititu euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera (2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa).

Hizkuntza bakoitzean maila gorenari dagokion puntuazioa emanen da. Ez dira inolaz ere batuko hizkuntza bati dagozkion bi mailatako puntuazioak.

Era berean, euskararen ezagupenari buruzko 3.3 c) letrari eman beharreko puntuazio osoa gehienez ere 3 puntu izanen da.



3.4. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta atal bakoitzerako aipatzen den gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu izangaiek alegatutako merezimenduen gainean.

Merezimenduen emaitzak hautaprobak egin ondoren argitaratuko dira, izangaien izena, abizenak, NANA eta puntuazioa adierazita. Bi deialdietarako arau komunetan –hirugarren oinarrian– ezarritako hautaproba guztiak gainditu dituzten izangaien merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko, bi egun balioduneko epea izanen da, azken probaren (bigarrena) emaitzak argitaratu eta biharamunetik aitzina. Lan-bizitzaren agiria derrigorrean aurkeztu beharko da merezimenduak egiaztatzekeo agiriekin batera, emandako zerbitzuen balorazioa egite aldera.

Merezimenduen balorazioaren aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

3.5. Deialdien probarako dei bakarra egingen da, eta izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, AIZ, pasaporte edo gidabaimena aldean dutela azalduko dira horretara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geratuko dira.

3.6. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoen aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

3.7. Proba bakoitza egin ondoren, izangai bakoitzaren emaitzak argitaratuko dira Udalaren webgunean eta iragarki-taulan.

Proba bakoitzaren emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta. Behin erreklamazioak ebatzita, eta hala badagokio, egin beharreko hurrengo probaren eguna eta tokia adieraziko dira.

Laugarrena. Kalifikazio-epaimahaia.

4.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: José Javier Abarzuza Gil, Iruñeko Udalaren Lan Medikuntzako Unitateko burua.

Epaimahaiburu ordezkoa: Inés Aguinaga Ontoso, Iruñeko Udaleko medikua.

Epaimahaikidea: Vega García López, Nafarroako Laneko Medikuntzari buruzko Irakaskuntza Unitateko burua.

Epaimahaikide ordezkoa: Juan Ramón Rábade Iraizoz, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoko zuzendari kudeatzailea eta Medizinan eta Zirugian lizentziaduna.



Epaimahaikidea: M^a Pilar Iturgaiz Gorena, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko medikua.

Epaimahaikide ordezkoa: Iñaki Moreno Sueskun, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko medikua.

Epaimahaikidea: Maite Catalán Oiz, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Nuria Esparza Pardo, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Idazkaria: Marta Martínez Llobet, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako teknikaria.

Idazkari ordezkoa: Xabier Burgui Vergara, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako teknikaria.

4.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoez, kontuan harturik ordezko izan daitezkeela, baita ere, epaimahaikide ordezko gisara izendatutakoak, bigarren ordezpena egitea beharrezkoa izanez gero.

4.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan horretarako aurreikusitako dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzeko, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

4.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

4.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Bosgarrena. Gainditu dutenen zerrenda

5.1. Behin proben kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak argitara emanen ditu Iruñeko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean, zein bere kabuz, honako hauek:

- Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran.
- Aldi baterako kontratazioari dagokion deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran.



Halaber, epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

5.2. Izangaiek guztira lortzen dituzten puntuetan gerta litezkeen berdinketak Epaimahaiak ebatziko ditu irizpide hauekin bat:

a) Prestakuntzarako izangaien deialdia: berdinketarik gertatuz gero, hautapen-prozesuaren bigarren partean –proba teoriko-praktikoan– lortutako puntuaziorik altuenaren arabera erabakiko da. Oraindik ere puntuetan berdinketarik gertatuz gero, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean izangaiek aitorturik daukaten antzinasunaren arabera erabakiko da. Eta, azkenik, berdinketak bere horretan jarraituz gero, zozketa bidez ebatziko da.

b) Aldi baterako kontrataziorako deialdian: berdinketarik gertatuz gero, hautapen-prozesuaren bigarren atalean –proba teoriko-praktikoan– lortutako puntuaziorik altuenaren arabera erabakiko da. Berdinketak jarraituko balu, zozketa bidez ebatziko da Zerbitzu Orokorretako Alorrean –Giza Baliabideetan–, eta berdinduta dauden izangaiei deituko zaie zozketan egon daitezen.

Izangai-zerrendak izangaia deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei osasun-azterketa bat eginen zaie, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Seigarrena. Izangaien zerrendak eta dei egitea.

Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaia deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Iruñeko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.pamplona.es) argitaratuko dira.

Ebazpen honek onesten dituen deialdien oinarriek ezartzen dutenarekin bat deituko zaie arau honek aipatzen dituen zerrendetako izangaiei, eta kasu guztietan bermatuko da prestakuntzarako izangaiek lehentasuna edukiko dutela aldi baterako kontrataziorako izangaien aurretik. Momentu horretan aurkeztu beharko dituzte III. atalean aipatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak. Bi deialdietako arau komunak, 1.3. oinarria.

Zazpigarrena. Errekurtsoak:

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.



Iruñean, 2020ko azaroaren 4an.— Javier Morrás Iturmendi, Giza Baliabideetako zuzendaria.



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, LAN MEDIKUNTZAKO MEDIKU ESPEZIALISTA LANPOSTUAN ALDI BATERAKO ARITZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ		JAIOTEGUNA
NAZIONALITATEA		EGUNGO HELBIDEA
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

Desgaitasunaren egiaztapena (hala badagokio, soilik).

Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.

Nire desgaitasuna dela-eta, eransten dudan egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik (beste orri batean).

AZALPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina-espediente bidez bereizita izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobei bidez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian, **Lan medikuntzako mediku espezialista** lanpostuan aldi baterako kontratu bidez aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2020ko ____ . Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____ (e)koan .

DATUEN BABESA. Iruñeko Udala da arduradun botere publikoak gauzatzuz egiten diren lan-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduz.

Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko behar den bitartean kontserbatuko dira, eta biltegiturako dira Udalarri haien erabileratik etor dakiokkeen erantzukizunik eduki bitartean. Halaber, bete behar dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako kontserbazio-arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: Jakinarazten dizugu eskubidea duzula datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeke Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz (www.pamplona.es). Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziari zuzenduta (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril), idazki bat aurkeztuz edo egoitza elektronikorekin bidez, www.agpd.es webgunean.

Iruñean, 2020ko aren (e)an
(Sinadura)



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, LAN MEDIKUNTZAKO MEDIKU ESPEZIALISTA LANPOSTUAN PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN ARITZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ		JAIOTEGUNA
NAZIONALITATEA		EGUNGO HELBIDEA
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

ADIERAZPENA:

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz, eta horiek jardunean aritzeko eskatu zaizkidanez bestekoak dira.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobeen bidez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian, Lan medikuntzako mediku espezialista lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2020ko ____ Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____ (e)koan .

DATUEN BABESA. Iruñeko Udala da arduradun botere publikoak gauzatuz egiten diren lan-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduz.

Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko behar den bitartean kontserbatuko dira, eta biltegiturako dira Udalarari haien erabileratik etor dakiokkeen erantzukizunik eduki bitartean. Halaber, bete behar dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako kontserbazio-arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: Jakinarazten dizugu eskubidea duzula datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz (www.pamplona.es). Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziari zuzenduta (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril), idazki bat aurkeztuz edo egoitza elektronikoaren bidez, www.agpd.es webgunean.

Iruñean, 2020ko aren (e)an
(Sinadura)



II. ERANSKINA

GAITEGIA

1. gaia.- Laneko Arriskuen Prebentzioaren esparruko araudia. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa. Prebentzioko Zerbitzuen 39/1997 Erregelamendua, urtarrilaren 17koa, eta horren garapeneko araudia.
2. gaia.- Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileen akordio kolektiboa (2017-2019): VI. Kapituluua. Lan-osasuna eta Laneko Arriskuen Prebentzioa.
3. gaia.- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak babesteari buruzkoa: Xedea, aplikazio-eremua eta printzipioak; Pertsonen eskubideak. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.
4. gaia.- Gizarte Segurantzako sistemaren lanerako ezintasunak. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eskumenak lanerako ezintasunen arloan. Ezintasunak baloratzeko ekipoen eraketa eta osaera. Ezintasunak baloratzeko ekipoen eginkizunak.
5. gaia.- Genero-berdintasuna: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako. Berdintasun-printzipioa eta bazterkeriaren kontrako babesa. 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.
6. gaia.- Osasuna zaintzea: gaitasuna lanposturako.
7. gaia.- Arriskuen ebaluazioa: oinarritzko kontzeptuak, prozedura. Ebaluazio motak eta prebentzio-jardunaren planifikazioa.
8. gaia.- Aldi baterako ezintasuna: kontzeptua, behaketa-aldiak eta betebeharrak bereziak gaixotasun profesionalen kasuan, diru-prestazioa, onuradunak, subsidio-eskubidearen sorrera eta iraupena, subsidio-eskubidearen galera, etena eta iraungipena.
9. gaia.- Lan-istripuak. Lan-istripuaren kontzeptua, sailkapena eta bazterketa. Istripuen berezitasunak: in itinere eta misiokoak. Ez-betetzeak, Lan Istripuen arloan, Araubide Orokorraren laneko segurtasun- eta osasun-xedapenei dagokienez.
10. gaia.- Gaixotasun profesionalak: Kontzeptua. Sailkapena. Eragile fisiko, kimiko eta biologikoek sortutako gaixotasunak. Jarduteko metodologia. Araudi aplikagarria. Laneko gaixotasunak: Kontzeptua. Gaixotasun ohikoenak.
11. gaia.- Lan zaratarek eragindako arriskua. Lanpostu arriskugarrietan ari diren langileen osasun-prebentzioa eta -zaintza.
12. gaia.- Berriazko osasun-zaintzarako protokoloak: Pestizidak.
13. gaia.- Langileak lanean minbizi-sortzaileekin esposizioan egotearen arriskuak. Arrisku-eragile nagusiak. Lanpostu arriskugarrietan ari diren langileen osasun-prebentzioa eta -zaintza.
14. gaia.- Langileak lanean eragile kimikoekin esposizioan egotearen arriskuak. Arrisku-eragile nagusiak. Lanpostu arriskugarrietan ari diren langileen osasun-prebentzioa eta -zaintza.
15. gaia.- Langileak lanean eragile biologikoekin esposizioan egotearen arriskuak. Arrisku-eragile nagusiak. Lanpostu arriskugarrietan ari diren langileen osasun-prebentzioa eta -zaintza.
16. gaia.- Datuak bistartzeko pantailekin lan egiteak eragindako arriskua. Arrisku-eragile nagusiak. Lanpostu arriskugarrietan ari diren langileen osasun-prebentzioa eta -zaintza.



17. gaia.- Laneko oftalmologia. Lanak sortutako begi-istripuak eta patologia oftalmikoa. Klinika. Diagnostikoa, prebentzioa eta tratamendua.
18. gaia.- Loaldiko buxatze-apnea. Klinika. Diagnostikoa, prebentzioa eta tratamendua.
19. gaia.- Langileari eragiten ahal dioten lanetik kanpoko osasun-arazoak: hipertentsio arteriala, hiperlipidemiak, diabetes mellitus-a, obesitatea.
20. gaia.- Norbera babesteko ekipamenduak eta babes-ekipamendu kolektiboak. 773/1997 ED, maiatzaren 30ekoa, langileek norberaren babeserako ekipamenduak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriei buruzkoa. Gida teknikoa.
21. gaia.- Lehen sorospenak eta langileen larrialdiko arta: Antolaketa lantokian. Oinarrizko bizi-euskarria. Bihotz-biriketako bizkortzea. Jarduteko modua zauri, erredura, traumatismo eta begi-lesioen aurrean.
22. gaia.- Osasun eta segurtasunerako hezkuntza laneko osasunean. Osasunerako hezkuntzako teknika didaktikoak. Aplikazioa laneko osasunari. Prestakuntza-plangintzak laneko osasunean. Programak eta inpaktu-ebaluazioa. Osasunaren sustapena.
23. gaia.- Bizkarrezurreko patologiak. Lepoko zartakoa. Errakiaren desbiderapena. Espondilolisia. Espondilolistesia. Lepoko eta gerriko patologiak: espondilosia, diskoko hernia, erradikulopatiak, lunbozialalgia, zerbikobrakialgia. Kokzixgodinia.
24. Gaia.- Laneko patologia erreumatikoa. Artritis erreumatoidea. Artrosia. Osteoporosia. Fibromialgia. Espondilitis ankilopoietikoa. Atropatia psoriasikoa. Esteen gaixotasun inflamatorioari loturiko artritis. Artritis erreaktiboa. Reiter-en sindromea. Lupus eritematoso sistemikoa.
25. gaia.- Berariazko osasun-zaintzarako protokoloak: Jarrera behartuak. Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa.
26. gaia.- Osasunaren berariazko zainketarako protokoloak: Goiko gorputz-adar bat behin eta berriz mugitzea. Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa.
27. gaia.- Laneko traumatologia (I). Hauen kontzeptua, klinika, diagnostikoa eta tratamendua: Burtsitis aurrepatelarra. Errotulako kondromalazia. Orkatilaren bihurritua. Oin-zolakako faszitisa. Hallux valgus, rigidus. Akiles-en tendoia haustura. Morton-en neuroma.
28. gaia.- Laneko traumatologia (II). Hauen kontzeptua, klinika, diagnostikoa eta tratamendua: Stener-en lesioa. Dardar mekanikoek eragindako Kienbock-en gaixotasuna. Dupuytren. Ganglioia. De Quervain tenosinobitisa, erpuruaren hedatzaile luzea, malguki-hatza. Ukondoaren higroma kronikoa. Prebentzioa. Osasun-zaintza, diagnostikoa eta tratamendua.
29. gaia.- Laneko psikosoziologia (I): Burnout-en sindromea: kontzeptua, zio eragileak, ondorioak, balorazioa eta prebentzioa.
30. gaia.- Laneko psikosoziologia (II): Mobbing-a: kontzeptua, jatorria, agerpen-moduak, garapena, ondorioak, balorazioa eta esku-hartzea.
31. gaia.- Laneko psikosoziologia (II): Laneko estresa. Kontzeptua. Estres-eragileak. Osasunaren gaineko eraginak. Esku-hartze prebentiboa.
32. gaia.- Historial mediko-laborala. Edukiak, osasun-agiriaren zaintza eta kontserbazioa. Datu medikoen konfidentzialtasuna.
33. gaia.- Ekintza medikoa: baimen informatua. Osasun-azterketaren derrigortasuna edo borondatezkotasuna.



34. gaia.- 2487/1998 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, armak edukitzeko eta erabiltzeko eta segurtasun pribatuko zerbitzuak emateko beharrezkoa den gaitasun psikofisikoaren egiaztapena arautzen duena.

818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Gidarien Erregelamendu Orokorra onesten duena.

36. gaia.- Txertoak lanaren esparruan. Oinarriak. Zeregin arriskutsuak eragile biologikoekiko esposizioarengatik. Oro har langile guztiei aplikatu beharreko txertoak. Berariazko txertoak, jardueraren arabera. Txertoen desegokitasunak: kontraindikazioak eta konplikazioak.